

## **2015eKO URTARRILAREN 28ko OHIKO OSOKO BILKURA**

### **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita zortziko hemeretziatan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Doña María Isabel Cañada Zorrilla  
Cristina Larrea Irigoyen  
Don Juan José Echavarren Salvador  
Don Juan Manuel Nagore Mina  
Don Miguel Angel Cervantes Aranz  
Don Javier Idiazabal Chourraut

Idazkaria: Loreto Echavarren Sanz a.

### **Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onestea.**

1.- 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkura arruntaren akta eta 2014ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkura bereziaren akta ez dira irakurri zinegotziek aldeztatik haien fotokopia jaso dituztelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktei oharpenik egin nahi dien. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren aktak aho batez onetsi dira eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

### **Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako**

2.- Honako jakinarazpen ofizialen informazioa eman da, osoko bilkurak horien berri izan dezan:

- Sustapen Departamentuaren jakinarazpena, 2014-12-24koa, Lurraldearen Antolakuntza Planen 1. gaurkotzeari buruzkoa.
- Herri lurretako Sailaren txostena, 2014-11-27koa, aginduzkoa, Urizko 23 poligonoko 147 lurzatiari eragiten dion udal katastroaren aldaketa egin aurretik prestatua. horretan esaten da ez dagoela arazorik katastroan bide publikoari dagokion aldaketa egiteko (bai A azpilurzatian zein B azpilurzatian); bai berriz jabetza pribatuko lursailera sartzeko bideari dagokiona, A azpilurzatia eta B azpilurzatiaren artean desberdintasuna dagoelako. Udal Plan Orokorren arabera A azpilurzatia hiri-lurzoru gisa dago sailkatua eta, hortaz, horren gainean ez dago ezer esateko, eta B azpilurzatia landa-lurzorua da, beraz herriko lur gisa daukan izaera mantentzen du. Egungo katastroaren arabera, oraindik indarrean sartu ez dena, lurzatia Urizko kontzejuarena da, herri lurra baita. Gainera indarrean dagoen katastroko 15 poligonoko 115 lurzatiarekin bat egiten du, hura ere Urizko herrilurra. Hortaz, katastro berria indarrean egon arte eta Nafarroako Gobernuak transakzio-hitza onartzen ez duen bitartean, sail horretatik ezin dute gaur egun herri-lurren izaera duten lurzatiak jabetza partikularra onartu. Horren ondorioz, katastro berriaren 23 poligonoko 147 herriko lurzatiaren B azpilurzatiaren katastro aldaketa ezin da egin (bide publikoari dagokiona izan ezik).

Osoko bilkurari jakinarazi zaio txostena Tracasari igorri zaiola, bide publikoari dagokion txostena bideratu dezan.

- Gonzalo Abokatuen 2014-12-18ko idazkia, data horretan aurkeztutako berraztertze helegitearen kopia helaraziz, Nafarroako Lurraldearen Aberastasuneko Zerbitzuak 2014ko azaroaren 10ean igorritako jakinarazpenaren aurkakoa.
- Amma Gerogestion S.M.aren 2014-12-26ko idazkia; horretan dio Nafarroako Merkataritza Erregistroak erabaki duela aurreikusitako kapital murrizketa eta estatutuen 5. artikulua aldaketa ez inskribatzea, uste baitute erabaki horiek hartu zituen Batzordea 4 kidez osatutako Kontseiluak deitu zuela, eta estatutuek 5 kide egon behar dutela diotela, hortaz, erregistroko arduradunaren ustez 4 kideko Kontseiluak ez du ahalmenik. Modu berean egoerari konponbidea emateko aurreikusitakoaren gaineko informazioa eman du.
- Mugarik Gabeko Medikuen erakundeak igorritako idazkia, 2014-12-23koa, Udalarari eman duen laguntza eskertuz.
- Iñaki Cortesen 2014-12-11ko jakinarazpena, data horretan Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak 2011n egin ziren obrentzako laguntzak eman direla esanez, Patronatuko azkeneko bileran adostu bezala, zegoena kitatu eta banatzea erabaki baizen, Udal honi 70.721,33 euro emanez.

Alkatetzak jakinarazi du diru hori horrela banatu dela:

Hiriberriko zolaketa	Zolaketak Im. Lus. Gor. Esp.	Imizkoko bidea	Hartuneen hobekuntza	Saraguetako hilerriko bidea	Hiriberriko Kontzejuko etxea
12071,7	5659,43	46631,6	2878,47	1600,2	1879,93

Udala ados dago.

### **Alkateak eman dituen ebazpenak, Osoko Bilkurak jakin dezan.**

3.- 2014ko azaroaren 25ean Alkateak eman zuen ebazpenaren jakitun da Oso Bilkura; haren bidez Nasuvinsari eskatu zitzaion Pedro Santiago Erro jk. jarri zuen 14-03109 zenb. duen gora jotzeko errekurtsioari buruzko txostena egin zezan; errekurtsio hori Pedro Santiagok jarri zuen bere etxean hezetasun arazoak konpontzeko obrak egiteko 2012-8-24an eta 2013-2-11n egindako eskaerei ezetza eman zitzaiolako.

### **Nafarroa Oinezentzako diru laguntza eskaera**

4.- Ikusirik Baztan Ikastolak idazkia igorri duela aurtengo Nafarroa Oinez urriaren 18an Baztanen eginen dela jakinaraziz eta diru laguntza eskatuz, aho batez erabaki da 2015eko Nafarroa Oinezi 100 euro ematea.

### **Nafarroako Ondarea Defendatzeko Plataforma**

Ikusirik Nafarroako Ondarea Defendatzeko Plataformak 2014-12-2an igorritako idazkia zenbait Udalek Plataformaren gastuei aurre egiteko toki entitate bakoitzak ahal duena ematearen orde urtero kuota finkoak ezartzea proposatu dutela jakinaraziz. Eta, hortaz, hurren Batzar Orokorrean Plataformarekin bat egin duten Udal eta Kontzejuen 2015eko kuotak ezartzeko baremoa proposatuko da (horien artean 200 eta 500 biztanle artean dutenek urtero 100 euro ordainduko

lituzkete). 2014an bakoitzak eman nahi duena emango du, baina proposamena aurreratu nahi dute oraindik 2014ko laguntza ordaindu ez dutenei laguntza emateko, eta Udal honi eskatzen diote, Plataformarekin bat egin duen horietako bat baldin bada, behin-behineko baremo horren arabera eman ahal duelako 2014ko eta hurrengo urteetako laguntza.

Aho batez erabaki da:

1.- Plataforma horri 2015ean eta hurrengo urteetan 100 euro ematea, behin-behineko baremo horren arabera.

2.- Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformari erabaki honen berri ematea.

### **Galdara aldatzeko Orhy-k aurkeztu duen aurrekontua**

6.- Ikusirik ORHY Iturgintza-Berogintza-Gas delakoak aurkeztu duen aurrekontua, 1.564 zenbakiduna, 2014ko azaroaren 28koa, galdara aldatu, metagailua desmuntatu eta iturgintzako lotura egiteko Artzibarko udaletxean 2.873,55 euro BEZ kanpo dela, aho batez erabaki da hura onartzea.

### **Arizkurengo biztanleek herriko pistari buruz aurkeztutako idazkia**

7.- Ikusirik Arizkurengo bizilagunek 2014-11-28an aurkeztu duten idazkian pista hobetzeko eskatzen dutela eta prest daudela hura behar bezala mantentzeko.

*“Solicitamos Ayuda al Ayuntamiento del Valle de Arce en relación al arreglo de la pista que comunica Elcoaz con Aoiz pasando por Aritzkuren.*

*Dicha pista, está siendo utilizada diariamente, por adultos y niños que han de atravesar un tramo de máxima peligrosidad, para acceder a diferentes necesidades, tales como, el autobus escolar. Este tramo, sufrió en el 2.012 un desprendimiento.*

*En agosto del 2013 se efectuó un arreglo, a cargo del Departamento de Montes del Gobierno de Navarra, inacabado.*

*Los habitantes de Aritzkuren, hemos intentado, en varios auzolanes, acabar dicho arreglo, conseguimos descegar las acequias para el paso del agua e intentamos mantenerlas limpias, pero la montaña sigue desprendiéndose, debido a la verticalidad del corte, cegando continuamente, el tubo renovado en el mencionado arreglo del 2013.*

*Actualmente, nos sentimos impotentes ante esta situación.*

*Por otro lado, y tal como se explica en la instancia entregada al departamento de Montes del Gobierno de Navarra con fecha: 15.03.2013 (que adjuntamos en fotocopia) y remitida por este al Ayuntamiento del Valle de Arce.*

*La verdadera mejora de la comunicación para las personas que vivimos en Aritzkuren, sería abordando los 4 km de roca madre irregular, en la desembocadura de esta pista, en Aoiz.*

*Dicho arreglo, significaría una gran mejora, en la vida de los niños que acuden diariamente al instituto de Aoiz, así como de las comunicaciones comerciales y laborables de los adultos, y las entradas y salidas de personas, que anualmente disfrutan de diferentes propuestas culturales que se efectúan en Aritzkuren.*

*Nosotros, no sabemos a quien competiría ayudarnos en esta mejora por eso, solicitamos ayuda a nuestro ayuntamiento para dirigir esta petición, a quien sea necesario.*

*Por nuestra parte, estamos dispuestas a asumir, parte del coste de dicho arreglo así como la ayuda manual de personas dispuestas a colaborar y nos comprometemos a mantenerlo en la medida de nuestras posibilidades.*

*A la espera de una convocatoria donde poder concretar estos terminos.”*

Alkateak dio Udala arazoari irtenbidea ematen saiatzen ari dela. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administraziooko Departamentuarekin gai honen inguruan solastu da eta esan diote pinu batzuk atera behar dituztela eta hortik aterako den dirua pista konpontzeko erabiliko dela, eta Agoizko ehiza barrutiak Artziko lurak erabiltzeagatik ordaintzen duena era horretarako erabiliko dela, eta bilera bat egingo dela Agoitz, Artzibar eta Longidako Udalen eta Agoizko ehiztarien artean.

Horretaz guztiez eskaera aurkeztu dutenei informazioa emango zaie.

### **Carlos Aristu Iriartek katastroa aldatzeko egin dituen eskaerak**

8.- Ikusirik Carlos Aristu Iriartek bi idazki aurkeztu duela Usozko herri lurretako lursailei eragiten dien katastro aldatetari buruz eta horien gainean Herri Lurretako Sailak txosten bana egin duela, Udal honek eskaturik.

1.1 Carlos Aristu Iriartek 2013-5-28an aurkeztutako idazkia:

*“Me dirijo a este Ayo, yo Carlos Aristu, vecino de Usoz, y como propietario de una parcela en el citado concejo con el número 14 en la escritura y que linda por el oeste con la parcela catastrada con el numero 11 y poligono numero 8 este dato sirve para situarla en el terreno que aparece reflejada como terreno comunal, dentro de dicha parcela existe cuatro partes cultivadas, según el SIGPAC con los números 12, 13, 14 y 15. Solicito que se me reconozca la titularidad de la parcela 14 como superficie arable y que se refleje en el catastro.*

*Se acredita dicha propiedad con copia de la escritura y las colindantes 12 y 13 con copia del registro del catastro de 1904 y timbrado el 5 junio de 1945 por la inspección. Esta parcela se ha ido transmitiendo por herencias sin que se haya vendido ni cedido a terreno comunal.*

*También se presenta copia de reclamación de la citada parcela en el convenio transaccional entre el Ayto de Arce y comunales.”*

1.2. Herri Lurretako sailak horren gainean 2014-11-27an egindako txostena:

*“Según el catastro actual, que se encuentra sin implantar en el Valle de Arce, la parcela 12 del polígono 8, ubicada en el Lugar de Usoz, es propiedad del Comunal del Ayuntamiento.*

*La referida parcela se corresponde con la parcela 1 (en la solicitud del ayuntamiento se identifica, por error, como parcela 46) del polígono 35 del vigente catastro, elaborado a comienzos del siglo pasado, y según el mismo la propiedad corresponde al Comunal de Concejo de Usoz.*

*Es sabido que ese ayuntamiento ha intentado en varias ocasiones llevar a cabo un convenio transaccional sobre bienes comunales, entre particulares y el propio ayuntamiento, y que por diversos motivos no ha llegado a concretarse.*

*En consecuencia, en la medida que el nuevo catastro siga sin implantarse y que el citado convenio no sea aprobado por el Gobierno de Navarra, desde esta Sección no se podrá reconocer, a este particular ni a ningún otro, la titularidad de terrenos que, a día de hoy, tienen carácter comunal a todos los efectos.”*

## 2.1 Carlos Aristu Iriartek 2013-7-30ean aurkeztutako idazkia:

*“Me dirijo a este ayto con motivo de una comunicación recibida sobre una construcción que se está realizando en el concejo de Usoz, a nombre de Carlos Aristu Iriarte.*

*1º En ningún momento el guarderío forestal ha procedido a la identificación de mi persona como promotor de la construcción, así que la utilización de mis datos personales sin mi autorización podría tener consecuencias legales.*

*2º Es falso que yo esté llevando a cabo una actuación sobre terreno comunal, ya que la parcela que figura con el nº 62 del catastro en vigor es de mi propiedad, que se acredita con el título de escritura y que corresponde al nº 50 de dicho documento, el cual me da la propiedad.*

*Por la descripción de la parcela escriturada con el nº 50, la parcela llega por el norte y oeste hasta el camino antiguo, camino del pueblo a la fuente, cosa que el catastro no refleja. Por tal motivo la superficie ocupada por la plataforma preparada no ocupa terreno comunal sino propiedad privada que además está delimitada por pared antigua de piedras, que se puede apreciar en el lugar.*

*3º Que para legalizar una futura nave agrícola se me comunica una serie de requisitos, como la licencia de obra, con lo que estoy de acuerdo en tramitar, siempre y cuando se aplique la misma norma para todos, ya que se están o se han realizado obras en otros concejos como Zazpe, Lakabe, Arizkuren, sin ninguna licencia de obra, y el guarderío forestal ni el Ayto han paralizado, que yo sepa.*

*4º Quiero comunicar a este Ayto mi total disposición a legalizar la futura construcción de una nave agrícola en el concejo de Usoz en terreno rústico de mi propiedad”.*

## 2.2. Herri Lurretako sailak horren gainean 2014-11-27an egindako txostena:

*“Según el catastro actual, que se encuentra sin implantar en el Valle de Arce, la parcela 62 del polígono 8, ubicada en el Lugar de Usoz, es propiedad del Comunal del Ayuntamiento.*

*La referida parcela se corresponde con la parcela 55 del polígono 35 del vigente catastro, elaborado a comienzos del siglo pasado, y según el mismo la propiedad corresponde al Comunal de Concejo de Usoz.*

*Es sabido que ese ayuntamiento ha intentado en varias ocasiones llevar a cabo un convenio transaccional sobre bienes comunales, entre particulares y el propio ayuntamiento, y que por diversos motivos no ha llegado a concretarse.*

*En consecuencia, en la medida que el nuevo catastro siga sin implantarse y que el citado convenio no sea aprobado por el Gobierno de Navarra, desde esta Sección no se podrá reconocer, a este particular ni a ningún otro, la titularidad de terrenos que, a día de hoy, tienen carácter comunal a todos los efectos.”*

Juan Manuel Nagore Mina zinegotziak proposatu du bilera bat egitea ezarri gabe dagoen katastro berriari buruz jabeekin eta kontzejuekin, orain arte Udalak egin duena eta Nafarroako Gobernuak hitzarmenari buruz, lurzatiaren baterakuntzari buruz eta katastro berriaren ezarketari

buruz dioena azaltzeko. Mabel Cañada Zorrilla zinegotziak dio beraiek ere gai horren gaineko bilera bat egitea proposatu behar zutela. Bertaratuak ados daude eta gaia zerrendatik kanpo eztabaidatuko da.

Aristu jaunaren eskaerei dagokienez, erabakitzeke utzi dira, lehen aipatutako bileran erabakiko dena jakin arte.

### **Artzibarko Gizarte eta Kultur Etxearen erabilera lagatzea arautzen duen Udal Ordenantzaren hasierako onespena.**

9.- Jarraian Artzibarko Gizarte eta Kultur Etxearen erabilera lagatzea arautzen duen Udal Ordenantza eztabaidatu da.

Ikusirik prestatu den Ordenantzen proiektua, aho batez erabaki da:

1.- Artzibarko Gizarte eta Kultur Etxearen erabilera lagatzea arautzen duen Udal Ordenantza hasiera batean onestea.

2.- Ordenantza argitaratzea eta hura bideratzea Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 eta 326 artikuluetan dioena betetzeko. Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onetsiko da eta hori argitara emango da, Ordenantzaren aldaketaren idazketa berriarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

### **Euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko Plana.**

10.- Ikusirik Artzibar, Auritz, Erroibar, Luzaide eta Orreagako Udaletan Euskararen Normalizazioa sustatzeko Plana (2015/2017 epealdia).

Aho batez erabaki da:

1.- Plan hori onartzea.

2.- Erabaki honen berri Aurizko Udalari ematea.

### **Alkatetzaren txostenak**

11.- Alkateak jakinarazi du:

- Urtarrilaren 15ean Pirinio aurreko arroen garapen agentziaren urteroko bilera egin zen Agoizko udaletxean eta bilera horretan 2014ko memoria erreparatu eta 2015eko lanildoak zehaztu ziren.
- Lur Geroako ingeniariak mezu elektronikoa igorri du baso lanetarako emango diren laguntzen Foru Agindua zirriborroa eta Mendi Ingeniarien Elkargoak aurkeztuko dituen alegazioak erantsiz, Lur Geroak egin dituenak barne.  
Oraindik ez dute Foru Agindua onartu eta Udalak Lur Geroak igorri dion informazio guztia Kontzejuei bidali die.

### **Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa**

12.- Mabel Cañada Zorrillak honako informazioa eman du:

- Irati Mankomunitateak bilera bat antolatu du heldu den otsailaren 5ean eskualdeko abeltzaintzako, plastikoak eta sokak hiri hondakinen edukiontzietan botatzea arautzeko.

Udalei eskatu diete deialdia abeltzainei helaraztea.

Cristina Larrea Irigoyenek honako informazioa eman du:

- Udalbiltzak joan den azaroaren 29an egin zuen bilerara joan zen. 2014an diruz lagundutako proiektuak aurkeztu ziren, horien artean Udal honek sustatu duen galtzadarena eta 2015eko deialdiaren gaineko informazioa eman zuten. Epea abenduan zabaldu zen eta otsailaren 16an bukatuko da. Hiru mota daude: Eragin, sustatzaile pribatuentzako, jarduera ekonomiko berriak sustatzeko; Elgarrekin, mugaz gaindiko proiektuentzako, sareko lana sustatzeko, eta Garapen Soziala, gizarte alorreko proiektuak sustatzeko, eta horretan Udalen proiektuak sar daitezke.

Asmoa da 2015ean beste proiektu bat aurkeztea. Bertaratuek ados daudenez, gaia zerrendatik kanpo landuko da. eta Udalak Eragin programaren gaineko informazioa igorriko du helbide elektroniko guztietara.

- Udalak dituen bizilagunen helbide elektronikoetara mezua igorri zen oikonimia (etxeen izenak) biltzeko lanaren informazioa emanez; lan hori burutzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Euskaltzaindiaren aholkularitza izango dugu eta parte hartzeko interesa dutenek izena eman behar dute udaletxera edo Euskara Zerbitzura deituz. Mezu horretan esaten da egin behar den lana dela ahozko informazioa lortu bizilagunei elkarrizketak eginez, bai eta artxiboko datuak biltzea, eta informazioa eskuratzeko borondatez arituko diren pertsonen laguntza behar dela, joan etorriak ordainduko zaizkiela eta lana bukatu ondoren parte hartu izanaren agiria emango zaiela. Herriak ongi ezagutzen duten ibarreko pertsonen emango zaie lehentasuna, gaiarekiko interesa baldin badute eta datuak biltzeko lanetan parte hartu nahi badute, eta euskaldunak izatea baloratuko da.

8 pertsona agertu dira prest laguntza emateko eta bilera egin da Unibertsitateko irakasle batekin, Zaraitzu eta Aezkoan egindako lanetan parte hartu baitu, eta bera izango da koordinatzailea. Otsailaren 7an, 11:00etan bilera egingo da eta bertara 8 pertsona horiek, Unibertsitateko irakaslea eta Euskara Teknikaria joango dira. Bilketa egin ondoren, Artzapezpikuko Artxibora joango dira eta bukatzeko ikerketa osoa argitaratuko da.

- Aurreko bilkuran erabaki zen udal armariaren diseinua enpresa bati egitea eskatzea, koloretan, formatu eta bereizmen diferenteetan. Bi aurrekontu jaso dira eta gai zerrendatik kanpo erabakiko da.
- Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2015eko proiektuak diruz laguntzeko Deialdia zabalik egonen da otsailaren 2tik martxoaren 3ra. Joan den urtean proiektu bat aurkeztu zen baina ez zuen laguntzarik jaso eta 2015eko deialdian beste proiektu bat aurkezteko asmoa dagoenez deialdia ongi aztertu behar da eskaera egin aurretik.

### **Galde-eskaerak.**

13.- Ez dago.

Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez onetsitako urgentzia aitortu ondoren, honako gaiak sartu dira:

### **Udalbiltzaren diru laguntza deialdia.**

14.- Udalbiltzak Pirinioentzako bigarren diru laguntzen deialdia martxan jarri duela jakin ondoren.

Aho batez erabaki da:

1.- Udalbiltzaren deialdi horretara “Pirinioko antzinako galtzada garbitu eta erabilgarri jartzeko” proiektua aurkeztea.

2º.- Arauzko tramitea bideratzea.

### **Katastroaren inguruko bilera**

Bertaratuek herritarrekin eta kontzejuekin bilera egitea eztabaidatu dute honako gaiez informazioa emateko: katastro berriaren proiektuari norbanakoek eta kontzejuek egindako erreklamazioei erantzuna emateko eman diren pausuak, Udalak onetsi zuen hitzarmena, Nafarroako Gobernuak ezarritako irizpideen arabera prestatua eta oraindik onartu gabe dagoena, bere garaian hasitako lurzatiei baterakuntza, Nafarroako Gobernuari eskatua, eta oraindik erantzunik jaso ez duena.

Nafarroako Gobernuarekin mintzatutako azkeneko aldiaren esan zuten beraiek ez dutela ezer egin behar; eta Herrilurretako eta Lurraldearen Aberastasuneko Zerbitzuarekin izandako azkeneko bileran eman duten konponbide bakarra da katastro berria ezartzea eta gero erreklamazioak egitea, Herrilurretako zerbitzuak horiek ebatziko dituela edo bestela epai bidez.

Kontzejuetako presidentekin eta babespeko kontzejuetako ordezkariekin bilera egingo da otsailean, aurrerago zehaztuko den egunean.

### **Aramarriaren aurrekontua**

16.- Ikusirik udal armarria diseinatzeko, koloretan, formatu eta bereizmen diferentetan, aurrekontu hauek aurkeztu direla:

1.- Juana M. García.

Lana:

- Armarria bektore-formatutan bermarraztea edozein tamainan erabiltzeko eta behar denean aldatu ahal izateko.
- Irudia formatu desberdinetan prestatzea Udalak erabiltzeko:
  - jpg. Fondo zuriarekin
  - png. Fondorik gabe/gardena
  - tiff. Kalitate handian inprimatzeko
  - .pdf

Aurrekontua: 300 euro

2.- Estitxuoroz Diseinatzaile grafikoa eta web

Lana:

- Artzibarko armarria bermarraztea (bektore-formatua)
- Hainbat formatutara egokitzea:
- PNG (fondorik gabe), JPG (fondo zuria), TIFF (karteletarako), JPG web, PDF

Aurrekontua: 350 euro

Ikusirik aurkeztutako eskaintzak eta udalarentzako egokiena Juana M. Garciarena delako ustean, aho batez erabaki da:

1.- Juana M. Garciaren aurrekontua onartzea eta udalaren armarriaren diseinua eskatzea berak eskainitakoaren arabera, 300 eurotan, udalarentzako eskaintza ekonomikorik hoberena

delako.

2.- Erabaki honen berri Juana M. Garciari eta Estitxuorzi ematea.

### **Korrikako kilometro bat erostea**

17.- Ondoren Cristina Larrea Irigoyen zinegotziak proposatu du, aurrekoetan bezala, Korrikako kilometro bat erostea Lakorri Emakumeen Elkartearekin batera; korrika ibarretik martxoaren 27an pasatuko da. Kilometroak 425 euro balio du, beraz Udalak 212,50 euro ordainduko lituzke. Aho batez erabaki da kilometro bat erostea Lakorri Elkartearekin batera. Udalak osoa ordainduko du eta Elkarteak %50a Udalari ordainduko dio.

### **2015eko aurrekontuaren aldaketa.- 1/2015**

18.- Bilkura honetako gai-zerrendako 6. puntuan ORHY Iturgintza-Berogintza-Gas enpresak aurkeztu duen aurrekontua, 2.873,55 euro, bez kanpo, onartu ondoren eta 121 21200 udaletxeko konponketa eta mantentze lanak egiteko diru-sailean diru nahikorik ez dagoela kontuan hartuz,

Ondoren erabaki da aho batez:

1.- 2015eko Aurrekontu Orokor Bakarraren aldaketa espedientea hasiera batean onartzea. (01/2015 espedientea)

Partida Presupuestaria	DESCRIPCIÓN	FINAN.	ALTA
121 21200	Udaletxea konpondu eta mantentzea		3.477
<b>FINANTZIAZIOA</b>			
870	Diruzaintzaren soberakina ..... 0.000 2013	3.477	
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.477</b>	<b>3.477</b>

3.- Osoko Bilkurak hasiera batean onartu duen aurrekontuaren aldaketak Idazkaritzan jartzea jendaurrean hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki Oholean argitaratuz, bizilagunek eta interesdunek espedientea aztertu eta egokiak ikusten duten alegazioak egin ditzaten.

3.- Jendaurreko epean alegaziorik egon ezean, aurrekontua behin betiko onartutzat emango da.

### **Otsako herrilarren aprobetxamendua**

19.- Ondoren erabaki da aho batez: Herrilurren aprobetxamenduen gaineko Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Otsako herrilarreak adjudikatzea, hartara 15 egun balioduneko epea zabalduz, eskubidea duten herritarrek eskaera egin dezaten, aldez aurretik ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratuz, adjudikazioa arautuko duten baldintzen plegua onartuz.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hogeita bata direnean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.